

LAUTAN HIRU, antzerki txikia – festibal handia (V. aldia)

Antzerki-ekoizpenari laguntza (800 euro + beste 1.200 euro lana 2023ko LAUTAN HIRU jaialdian estreinatzen bada).

- Euskaltzaindiak antzerki-ekoizpena sustatzeko laguntza sortu zuen 2020an, Bilboko Udalaren babesarekin. Aurtengoa hirugarren aldia izanen da.
- Helburu nagusia euskarazko antzerkia hauspotzea da, batez ere, pieza laburren sorkuntzari lagunduta. Horrez gain, hautatutako lana jendaurrean estreintzeko aukera ere emango zaio sarituari (epaimahaiak hala baderitzo, ekoizpenaren jarraipena egin ostean).

OINARRI-ARAUAK

- Antzezlanek, gehienez ere, 30 minutu eta, gutxienez, 15 minutuko iraupena izan behar dute.
- Testuek euskaraz idatzita egon behar dute.
- Antzezlanak jatorrizkoak eta estreinatu gabekoak izan behar dira; hau da, ez da beste hizkuntza baten itzulpenik edo antzezlan luzeago baten moldaketarik onartuko.
- Era berean, ez dira onartuko antzerako beste laguntzaren bat jaso duten piezak.
- Bakarrizketak ere onartuko dira.
- Lanak areto txikietan antzezteko modukoak izango dira; hau da, formatu txikikoak; hots, giza baliabide eta beharrian tekniko gutxi eskatzen dutenak.

Gaia eta moldea

- Libreak izango dira.

Epaimahaia eta aukeraketa

- Epaimahaia LAUTAN HIRU antzerki-jaialdiko arduradunek osatuko dute.
- Epaimahaiak lan bakarra hautatuko du.
- Epaimahaiak laguntza ez ematea ere erabaki dezake.
- Epaileen erabakia apelaezina izango da. Saria 800 euroko laguntza gidoiari + beste 1.200 euro antzezlanaren 2023ko LAUTAN HIRU jaialdian estreinatzen bada (epaimahaiak erabakiko du hori, ekoizpenaren jarraipena egin ostean).

Epeak

- Gidoiak bidaltzeko epea 2022ko urriaren 14an amaituko da.
- Parte hartu nahi dutenek lanari buruzko aholku eta informazio gehien bidali beharko dute posta elektronikoz.

Bidali beharreko derrigorrezko datuak:

1. Taldearen izena.
2. Jatorrizko testua (testu-fitxategi batean edo PDF formatuan).
3. Antzezlanaren zuzendariaren eta gidoilariaren izenak.
4. Antzezleen izenak.
5. Laburpena.
6. Gutxi gorabeherako iraupena.
7. Antzezteko tokiaren ezaugarriak eta beharrian teknikoak. Piezaren bideo laburra –lagin bat– ere lagungarria litzateke.

Informazioa posta elektronikoz bidaliko da Euskaltzaindiaren helbide honetara: info@euskaltzaindia.eus, mezuaren GAIAN hauxe adierazita: 'LAUTAN HIRU antzerki-ekoizpenari 2023ko laguntza'.

Antzezlanen jabetza

Ikuskizunaren jabetza eta lana beste kulturgune batzuetan antzezteko eskubidea muntaia egiten duen talde edo konpainiarena da, baina etorkizunean egingo lituzketen emanaldien publizitatean beren-beregi azaldu beharko litzateke 'LAUTAN HIRU ekoizpen-laguntza' jaso duela.